

# Espainiako Gobernuak – Unidos Podemos akordioa

Pedro Sanchezen gobernuak eta Unidos-Podemosek “2019ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Akordioa” delakoa sinatu dute. Izena gorabehera, berez legegintzaldirako akordio bat dela esan daiteke; puntu nagusiak aurrekontuen eztabaidatik kanpo geratzen dira (bere legegintza-bideak dituzte, esaterako lan erreformak edota gutxieneko soldatak).

## 1. 2019KO AURREKONTUA

Zuzenean aurrekontuari dagokionez, zalantzakoa da PSOEn Gobernuak uda aurretik hartu zuen bidetik aldentzen ote den, hainbat arrazoiengatik:

- Bruselara urriaren 15ean bidali zen 2019ko aurrekontu-proiektuak Sanchezen gobernuak 125.000 milioiko gastu-muga ezartzen du, hots, uztailean aipatutako zenbateko bera. Horrenbestez, gobernuak datorren urtean bere esku izango duen kopurua Podemosekin akordioa itxi baino lehenago gastatu nahi zuen berbera da.
- Akordioak dio jasotako neurriekin 2019an 5.138 milioi gehiago gastatuko direla, baina hori ez da egia. Zenbait neurri (esaterako, pentsioei 2018an KPI erreala aplikatzea) lehenagotik datoz. Beste kasu batzutan gastu-kopuru orokorrak ematen dira, ez aurrekontu igoerari buruzkoak (adibidez, menpekotasunaren gaiean). Beraz, erabaki berriek eragingo duten gastu igoera izatekotan txikia izango da, eta aipatzen ez diren sailetan egindako murrizketekin orekatu beharko dira.

Akordioak ez du aipatzen Aurrekontu- eta Finantz-Egonkortasunerako Legean inposatutako logika eta aurrekontu-diziplina hausteko asmorik. Unidos Podemosek lege hori indargabetu nahi zuen; alabaina, ez da indargabetuko, ezta aldaketarik egingo ere. Eta logika horren baitan, Bruselara bidalitako zirriborroak 2019ko defizit publikoa BPGaren %1,8ra jaistea proposatzen du (alegia, gobernuak uztailean aipatzen zuen zenbateko bera). Unidos Podemosek eta bere kidekoek nahi zuten lehen neurria izatea %1,8tik gorako defizit publikoa, baina hau ere ez da adostu.

Zerga-politikan ez dago aldaketa aipagarririk lehenago Rajoyk iragarri zituen asmoekiko. Gogoratu beharra dago espainiar Estatuan europar batez besteko presio fiskal maila baino 77.000 milioi euro gutxiago biltzen dela. Akordioarekin alde hau ez da murriztuko.

Beraz, Sanchezen 2019ko aurrekontuak jarraitzen dio Rajoyk azken urteetan erabaki zituenen arrastoari. Gobernuak berak Europar Batzordeari jakinarazi dio datorren urtean BPGaren %0,4ko doikuntza egingo duela, hots, 2013tik hona espainiar estatuan egin den “ahalegin estrukturalik handiena”.

## 2. AURREKONTUEN EZTABAIDATIK HARAGO DOAZEN ERABAKIAK

Akordioan 14 atal jasotzen dira: pentsioak, ongizate estatua (osasuna, hezkuntza eta menpekotasuna), etxebizitza, enplegua, autonomoak, familientzako laguntzak, zientzia eta berrikuntza, feminismoa, tokiko gobernuak, energia-trantsizioa, kalitate demokratikoa, kultura, jokia eta neurri fiskalak.

Neurrien zehaztasun maila oso desberdina da. Kasu askotan lantaldeak eta batzordeak sortzera mugatzen da; esaten da analizatu egingo dela, edota etorkizunean arautu (baina definitu gabe araugintza nolakoa izango den).

### A. Gutxieneko soldata eta pentsioak

Haatik, kontu garrantzitsu batzuk zehazten dira, esaterako:

a) Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LGS) 2019an 900 eurora igotzea. 2018koarekiko 164 euro gehiago dira, baina ez da iristen ELAK Euskal Herrian aldarrikatzen duen gutxieneko soldatara (1.200 euro).

LGSaren igoera honek nabarmen uzten du 2017ko abenduaren 26an Rajoyren gobernuak, CEOEk, CCOOek eta UGTk sinatutako elkarrizketa sozialeko akordioa. Honen arabera 2019an LGSa hileko 773 eurora iritsi zitekeen, betiere baldintza batzuk betez gero: BPGaren hazkundera, enpleguaren gehikuntza... Akordioa baldintzatuta zegoen, eta orain plazaratu den akordioko zenbatekotik 127 eurora geratzen zen. Neurri hau konkretua eta neurgarria da. Ez da harrizkoa patronalak abenduko akordioari heltzea esanez LGSaren igoera txikiagoa izan behar dela, eta "elkarrizketa soziala zalantzan" jartzen ari direla.

b) Legez bermatu pentsioak KPIaren arabera gehituko direla. Esaten da "sistemaren beraren erreforma integralaren baitan, Gizarte-Segurantzako araudian jasoko da KPI errearen arabeko pentsioen igoera". "Bermatu" hitza berritasuna da Toledoko Itunean erabili ziren hitz lausoekiko (izan ere, Itunaren sinatzaile bakoitzak gauza bat interpretatu baitzuen).

Pentsioen gaian nabarmentzekoak diren beste puntuak:

- Aipatu den legez, 2019ko aurrekontua mugatzen da pentsioak KPI adina igotzera, eta gutxieneko pentsioak zein kotizaziopeko ez direnak, %3 (portzentaje urriegia).
- Gizarte-Segurantzaren erreforma aipatzerakoan KPI adinako igoera bermatu besterik ez da egiten. Ez da aipatzen gutxieneko pentsioak gehitu beharra (pentsiodunen mobilizazioetan aldarrikatzen diren 1.080 euroak). Ez da ere deus esaten iraunkortasun faktoreaz (ez da testuan ageri). PP Gobernuan zela PSOEek eta Unidos Podemosek eskatzen zuten Rajoyren erreformatik kentzea pentsioen iraunkortasun faktorea (faktore hau Zapateroren pentsio erreforman CCOO eta UGTekin adostu bazen ere). Unidos Podemosek lege proposamenak ere egin zituen faktore hori ezabatzeko.

Beraz, pentsioen gaian akordioa oso urrun dago azken erreformek ezarritako murrizketak bertan behera uztekin.

## **B. Lan erreforma**

Gai honetaz akordioak honako konpromisoak jaso ditu:

- "2018 amaitzerako indargabetu 2012ko lan erreformaren punturik kaltegarrienak, batik bat negoziazio kolektiboari dagokionez, lan-araudi berri bat ezarriz, honako osagaiekin": lan-hitzarmenen ultraaktibitatea luzatu (beste zehaztasunik gabe); lan-baldintzen funtsezko aldaketarako zergatiak eta prozedura berrikusi (honetaz ere ez dago xehetasun handirik); langile finko eta aldi baterakoaren arteko dualtasuna murriztu, baita ezegonkortasuna eta lan-errotazioa; honetarako aparte kokatu nahi dira lan edo zerbitzu jakinerako kontratua, kontrata, azpikontrata edo kontzesio administratiboaren baitan egiten diren lan eta eginkizunetatik; lanaldi partzialeko kontratuan lan ordutegia berariaz agertu beharra areagotzea.
- "Ahal den urgentzia handienaz bukatzea lege-proposamenen tramitazio parlamentarioa", honakoei buruz: 42. artikulua aldaketa; 34. artikulua aldaketa; gizon eta emakumeen arteko ordainsari berdintasuna, soldata-arrakala desagerrarazteko; enpleguan eta okupazioan emakume eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna. Halere, ez da ezer

esaten tramitazio hori nola burutu behar den, hots, zer nolako neurriak proposatuko diren.

- “2019an ekitea, elkarrizketa sozialaren baitan, XXI. Mendeko Langileen Estatutu berria idazteko lanei. Horretarako lantalde bat eratuko da, zeina zinezko ospea duten adituek osatuko duten, akademia eta eremu profesionalekoak”. Ikusirik Estatuan elkarrizketa sozial delakoak izan duen ibilbidea, esan daiteke ez dagoela sakoneko aldaketarik egiteko borondaterik, bederen ez langile-klasearen mesedetan. Gogoratu beharra dago eskuina agintean zenean aldaketak egiteko ez zuela aurrez sindikatuekin akordioa iristeko baldintzarik aipatu. Egin egin zituen; kitto.

Lan erreforma honi buruz honakoa esan daiteke:

- PSOEk Rajoyren lan erreforma indargabetzea eskatzen zuen (2012koa). Podemosek Zapaterorena (2010) ere ezabatu nahi zuen. Haatik, akordioak soilik esaten du 2012ko lan erreformaren alderik kaltegarrienak derogatu behar direla, zehaztasun handirik gabe. Agerikoa da indargabetzea oso mugatua izango dela.
- Erreformatik kanpo uzten dute sektoreen lehentasuna enpresan negoziatzen denarekiko eta eta estatuko hitzarmenak gailentzea hemen egiten dugun negoziazio sektorialari, hau langile-klasearen pobretzea hedatzeko oinarrizko tresna delarik. Araugintza honi esker estatuko hitzarmenetan debekatu edo mugatu egin daiteke lurralde mailako negoziazio kolektiboa (estatalizazioa), edota enpresa-hitzarmenek sektorekoetan ezarritako baldintzak baino okerragoak inposa ditzakete. Deigarria da ez aipatzea enpresa-hitzarmenaren aplikazio lehentasuna, izan ere, bi alderdiek, PSOEk eta Unidos-Podemos, argi esan baitzuen PPK ezarritako aldaketak indargabetu nahi zituztela. Eta estatalizazioari buruz (PSOEk ezarri zuen Zapatero agintean zelarik), ELAk talde parlamentarioekin bilerak egin ditu eragiten duen kalteaz ohartarazteko.
- Zehaztasun gabeziaz gainera, salatzea da ere elkarrizketa sozialaren esku utzi nahi dela hainbat gai; honek izatez beto ahalmena ematen dio patronalari.

### **Kontutan izan beharreko beste puntu batzuk**

- Edukiei dagokienez, aitatasun baimenetan, menpekotasunean edota etxeko langileen kasuan ikusteko dago zer nolako proposamen zehatzak egingo diren, gai bakoitzean akordioaren eragina zenbatekoa izango den erabakitzeke. Dagokien eremuan lan egiten duten erakunde sozialek atal horiei buruzko iritzi kritikoa dute, eta ELAk eurekin bat egiten du.
- Kontutan izan behar da neurri gehienek arau-aldaketak eta araudi berriak eskatzen dituztela, eta beraz, horiek zein aurrekontuek beharrezkoa dutela gehiengo parlamentarioa; alabaina, gehiengo hori ba ote dagoen oso zalantzazkoa da.

### **3. ONDORIOAK**

- Sinatu dena legegintzaldirako akordioa da, 2019ko aurrekontuetatik harago doana.
- Akordioak ez die 2019ko aurrekontuei aldaketarik eragingo. Azken urteetako ildoari jarraituko zaio. Espainiako Gobernuaren gastu-aurrekontuan ez da aldaketarik izango, akordioaren aurretik zein ondoren.
- Diziplina fiskalari men egiten zaio (Europar Batasuna eta Aurrekontu- eta Finantz-

Egonkortasun Legea). Alegia, jokalekua ez da aldatuko: Aurrekontu-Egonkortasun Legeak indarrean jarraituko du (eta berarekin batera, baita gastu-arauak eta defizit zein zor publikoaren mugek). Gobernuak berak iragarri dio Europar Batzordeari datorren urtean BPGaren %0,4ko doikuntza egingo duela, 2013tik hona espainiar Estatuan egin den "ahalegin estrukturalik handiena".

- Akordioan aurrerapauso handiak ere badira: LGSaren igoera edota pentsioak KPI adina igoko direla bermatzea. Baina puntu hauek azken urteetako politikarekiko aldaketa badakarte ere, oso motz geratzen dira.
- Pentsioetan ere akordioa oso urria da. Egonkortasun Faktorea mantentzen da; ez zaio helduko gutxieneko pentsioen duintzeari, eta murrizketa handi batuk ez dira bertan behera geratuko (pentsio berriek jasango dutena, edota erretiro adina atzeratzea).
- Lan erreforma oso mugatua izango da; hau ez dator bat akordioa sinatu duten indar politikoen Rajoyren aginte aldiaren aldean galdegiten zutenarekin. Berreskuratu beharreko eskubideei buruz goranahi handiagoa izan behar zuten; gainera, ELAk exijituko du erreformak bertan behera utz dezala negoziazio kolektiboaren estatalizazioa, zeina Zapaterok 2011n ezarri baitzuen.
- Akordio honek beste behin ere agerian uzten du indar politikoen oposizioan daudenean posizio bat hartzen dutela, baina agintera iritsiz gero edukiak murriztu edo zuzenean ahaztu egiten dira (lan erreformen indargabetzea, menpekotasuna, etxeko langileak, Mozal Legearen derogazioa...).
- Egia da akordioak egiten duen analisi sozialak ez duela zerikusirik PPren Gobernuak egin zuenarekin, baina ituna puntu askotan intentzio-adierazpen hutsa da. Hain zuzen, propaganda kutsu nabarmena du, hitzartu denak kasu askotan ez baitu bermatzen aurrerapausoak izango direnik, edo ez da zehazten zer erabakiko den.
- Neurri gehienek arau-aldaketak eta araudi berriak eskatzen dituzte, baina hauek aurrera ateratzeko gehiengo parlamentarioa behar da, eta oraingoz hori oso zalantzan dago.